

## PRENTSARAKO OHARRA

18/07/07

### **Lekeitioko Domingotarren Komentuan landatuko dan Gernikako Arbolaren kimuagaz ospatu da ordenak 650 urtez egin dauen beharra**

Sei mende baino gehiago igaro dira, garai haretan Bizkaiko Jauna zan Gaztelako Tellok kostaldeko udalerrri horretako Ama Domingotarren Komentua sortzeko beharrezkoak ziran Pribilegioak emon ebazanetik. Une honetan hamabost monjak –Elorrioko bik, Lekeitioko batek eta Keniako errepublikako hamahiruk– osatzen dabene komunitate erlijiosoak azkenengo 650 urteetan behar gehien euki dabene pertsonakaz egin dauen lana ospatzeko, Euskadiko erakunde nagusiek Gernikako Arbolaren kimu bat landatu dabe, Bilboko Gotzainak bedeinkatu ostean.

Guzmango Santo Domingo monastegiko lorategietan egin dan ekitaldi sinbolikoan Iñigo Urkullu Lehendakariak, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, Sor Elena Kortabari prioreak, Sor Benita prioreordeak, Mario Iceta Bilboko gotzainak, Joseba Gezuraga Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteordeak, Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Foru Diputatuak eta Koldo Goitia Lekeitioko alkateak hartu dabe parte.

“Autortu behar deusuet gaurko landaketea oso berezia dala niretzat”, aurreratu dau Batzar Nagusietako Presidenteak, bere berbaldia hasi aurretik. Berbaldian, Balendin Berriotxoa domingotar elorrioxarraren figurea azpimarratzeaz gain, bera eta bere familia kongregazino erlijiosoagaz lotzen dituan erlazino pertsonalean sakondu dau. Berbaldia bukatzeko eskerrak emon deusez “sarri askotan ikusezinak zarien emakumeoi”, “gure gizartearen alde egiten dozuen behar ausartarengaitik”.

Aintzatespen horregaz bat egin dau, baita be, Koldo Goitia herriko alkateak, eta haretx sinbolikoa Bizkaiaren eta Lekeitioaren oparia dala adierazo dau, eskerrak emoteko. Modu berean, Sor Elena prioreak, bere berbaldian, eskerrak emon deusaz Lekeitioko herriari.

Erakundeetako eta komunitate erlijiosoko ordezkari guztiek lehenengo palakadak emon ostean, musikea eta dantzea etorri dira. Bertaratu diran guztiek “Gernikako Arbola” abestu ostean, Etorkizuna taldeko lau dantzarik Emakumeen Aurreku bat dantzau dabe. Horren ostean, eta bukaerea emoteko, Ama Domingotarrek, jatorri afrikarreko ohorezko dantza bat egin dabe.

Ekitaldi publikoaren aurretik, erakundeetako eta erlijino komunitadeko ordezkariak topaketa pribadua euki dabe, eta horren ostean, Mario Iceta Bilboko gotzainak emon dauen mezara joan dira.

### **SERORATEGI IZATETIK KOMENTU IZATERA**

Erdi Aroan ohikoa zan udalerriek serorategiak eukitea, inguruko kaperak eta baseleizak zaintzeaz arduratzen ziran emakume taldeak bizi ziran etxeak. Emakume horreek “serora” izena be hartzen eben, eta bizimodu erlijiosoa aurrera eroan arren, ez eukien ezelango prestakuntza berezirik, ezta Eleizak onetsitako Araurik be. Beste errazoi batzuen artean,

ez eukielako komentu bat eregiteko eta mantentze lanak egiteko baliabide ekonomikorik. Garai haretan Bizkaiko Jauna zan Don Tello izan zan XIV. mendearen erdialdean bere jauregietako bat domingotarren fundazioari emon eutsana.

Halanda be, 1368an, serorategi horreekaz amaitzeko asmoz, Eleizako goi Agintaritzak leku horreek benetako monastegi bilakatzeko agindua emon eban, onetsitako Arauakaz eta Konstituzinoakaz. Juana Ibáñez de Arsuaga bermeotarra izan zan, limosna handi baten eta Lekeitioko Kabilgoagaz izandako bilera baten bitartez, Komentuaren fundazioa zehaztea lortu ebana. Modu batean edo bestean, Juanaren fundazioak baeukan errebindikazino puntu bat: serorategi bat, gizonen komentuen baldintza berberak eukiko ebazan andrazkoen komentu bilakatzea.

Urte bereko abuztuan, Don Tello berak Bikario Nagusiaren lizentzia jaso eban, Prelatuaren izenean, eta baita Monastegia bere beren beregiko babesagaz jasoten ebala ezarten eban dokumentua be.

Une honetan, Don Tello Bizkaiko Jauna izan zanetik aldaketa barik jarraitzen dauen Bizkaiko komentu bakarra da.

NOTA DE PRENSA

07/07/18

## **La plantación de un retoño del Árbol de Gernika en el Convento Dominicás de Lekeitio conmemora sus 650 años de labor**

Han pasado más de seis siglos desde que el entonces Señor de Bizkaia, Tello de Castilla, concediera los Privilegios necesarios para fundar el Convento de las Madres Dominicás de este municipio costero. En conmemoración a la labor que esta comunidad religiosa, actualmente formada por quince monjas – dos de Elorrio, una de Lekeitio, y trece de la República de Kenia, -, ha realizado con las personas necesitadas durante los últimos 650 años, las principales instituciones vascas han plantado un descendiente del Árbol de Gernika previamente bendecido por el Obispo de la Diócesis de Bilbao.

Al simbólico acto celebrado en los jardines del monasterio de Santo Domingo de Guzmán han acudido el Lehendakari, Iñigo Urkullu; la Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui; la priora, Sor Elena Kortabarri; la subpriora, Sor Benita; el obispo de la Diócesis de Bilbao, Mario Iceta; el vicepresidente de las Juntas Generales de Bizkaia, Joseba Gezuraga; la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta; y el alcalde de Lekeitio, Koldo Goitia.

“Tengo que admitir que el acto de plantación de hoy es muy especial para mí” ha anticipado la Presidenta de las Juntas Generales antes de comenzar con su intervención. Un sentido discurso en el que, además de destacar la figura del dominico y elorriotarra San Valentín de Berriotxoa, ha profundizado en la relación personal que les une, tanto a ella como a su familia, a la congregación religiosa. Un discurso que ha finalizado con el agradecimiento a las que “en muchas ocasiones sois mujeres invisibles” por el “valiente trabajo que realizáis por nuestra sociedad”.

Un reconocimiento al que también se ha sumado el alcalde del municipio, Koldo Goitia, quien ha declarado que el simbólico roble es un regalo de Bizkaia y Lekeitio en señal de su agradecimiento. De manera recíproca, la priora Sor Elena ha aprovechado su intervención para mostrar su gratitud al pueblo de Lekeitio.

Una vez todos los representantes institucionales y de la comunidad religiosa han echado las primeras paladas, el acto ha dado paso a la música y la danza. Tras entonar entre todos los allí presentes el “Gernikako Arbola”, cuatro dantzaris del grupo Etorkezuna han bailado un Aurreku de Mujeres. Seguidamente, y como colofón, las Madres Dominicás han realizado una danza de honor de origen africano.

Previo al acto público, los distintos representantes institucionales y de la comunidad religiosa han mantenido un encuentro privado dentro del Monasterio, para más adelante asistir a una misa oficiada por el Obispo de Bilbao.

### **DE BEATERIO A CONVENTO**

Durante la Edad Media era habitual que los municipios contaran con beaterios, casas en las que vivían grupos de mujeres dedicadas a cuidar todas aquellas capillas y ermitas

adyacentes. Estas mujeres, también llamadas “soreras”, a pesar de llevar una vida religiosa no contaban con una formación especial, ni Regla aprobada por la Iglesia. Entre otras razones porque, por falta de medios económicos, no podían construir y mantener un convento. Fue Don Tello, entonces Señor de Bizkaia, quién a mediados del siglo XIV, cedió a la fundación dominicana uno de sus palacios.

No obstante, en 1368, con el objetivo de acabar con dichos beaterios, la Santa Sede obligó a que éstos se convirtieran en Monasterios verdaderos, con su Regla y Constituciones aprobadas. Fue la bermeana Juana Ibáñez de Arsuaga quien, a través de una gran limosna y una reunión con el Cabildo de Lekeitio, logró concretar la fundación del Convento. En cierto modo la fundación de Juana tenía algo de reivindicación: transformar uno de los beaterios en un convento, en igualdad de condiciones que otro masculino.

En agosto de ese mismo año el propio Don Tello recibió la licencia del Vicario General en nombre del Prelado y el documento en el que se estipulaba que él recibía el nuevo Monasterio bajo su expresa protección personal.

Actualmente se trata del único convento de Bizkaia que sigue como tal ininterrumpidamente desde que Don Tello fuera Señor de Bizkaia.